

HERNANI	GOIZUETA	ARANO	EREÑOTZU	ASTIGARRAGA	Hemeroteka
Multimedia	Publizitatea	Bazkide egin	KOMUNITATEA		



Udaletxean egin zen atzo aurkezpena eta haurrek ilarrak eraman zituzten.

[albiste](#)//VI. ILAR EGUNA

Herriko ekoizleak Astigarragako ilarra sortzen ari dira Baratz Elkarteak

Seigarren urtez, Ilar Eguna ospatuko dute bihartik Astigarragan, eta lau eguneko programa oparoa prestatu dute. Datorren urtean salto bat eman eta nazioarteko azoka antolatu nahi da.

ASTIGARRAGA

2017/05/03 00:00 Asteazkena

Aurten ere, protagonismo berezia eskainiko diote astigarrarrek ilarrari, eta bihartik aurrera ospatuko dute Ilar Eguna, seigarrenez. Eguna baino, hala ere, jardunaldiak izango dira, ilarrari eskainiko dizkiotenak.


Zehazki, bihar hasi eta igandera arte, lau eguneko programa prestatu dute, Astigarragako Baratz Elkarteak, Behemendik eta Udalak elkarlanean



PDF

HERNANI
Maiatzak 11

ESKELAK

HERNANI
Joxe Zabaleta Aramburu


Agenda Bateratua
HERNANI

Pintxopotea eta ilar pintxo onenaren lehiaketa, hasteko

Pintxopotearekin emango diote irekiera, bihar. Herriko tabernetan egongo dira ilar pintxoak, eta onenari, saria emango dio sukaldari profesionalen epaimahaiak. Etzi ostiralean, baratzen bisita egingo dute Astigarraga Herri Eskolako eta inguruko ikastetxeetako ikasleek. Larunbatean, berriz, baratzen bisita egingo da udaletxeko kontzejupetik abiatuta.

Ilar dastaketa egiteko aukera izango da, doan, baina ize-na eman behar da: baratz.elkartea@gmail.com edo donostialdea@behemendi.eus. Eta ondoren, ilar menu berezia ere egingo dute, Roxario jatetxean. Txartelak salgai jatetxean bertan (943 55 11 38 edo info@roxario.com) edo donostialdea@behemendi.eus. Ilar Egunri edo hobe esanda Ilar jardunaldieri amaiera igandean emango zaio azoka berezi batekin. Ilarrak eta produktu desberdinak egongo dira salgai eta haurrentzako talo tailerra dago Foru plazan.

Prentsaurrekoan Txaro Zapiain eta Roberto Ruiz (Frontón Jatetxea), Baratz Elkartereko ordezkariak, Behemendiko ordezkaria eta Zorione Etkezarraga alkatea eta Urkiri Salaberria zinegotzia egon ziren besteak beste. Alkateak azpimarratu zuen «ilarraren egunari garrantzi haundiago eman nahi diogu. Herritik sortu den ekimen bat da eta horrexegatik indartu behar da. Herritarren proiektu bat eta herritarren onurarako martxan dago eta hori jakinarazi behar diogu».

Ondoren Txaro Zapiainek hartu zuen hitza eta datorren urterako «nazioarteko azoka bat antolatu nahi dugu» adierazi zuen. Baratz elkarterko kideak esan zuten «Zaragozako hazitegi biltegitik Azkoitiko eta Arrasateko ilar haziak hartu eta Astigarragako ilarra sortzeko lanean ari gara. Ertziko bisitan herri eskoletako ikasleek 16 ilar mota dastatuko dituzte eta zeintzuk diran hoberenak kontutan hartuko ditugu».

17:00 Helduentzako euskarazko zinea!

Helduentzako euskarazko zinea!

Biteri Kultur Etxea

ASTIGARRAGA


16:45 GURASOLAGUN

LUDOTEKA

GURASOLAGUN LUDOTEKA

Astigarragako herri eskola.

//Erabiltzaileak



VI. ILAR EGUNA

Maiatzak 4, bihar: 19:00etan, Ilar pintxopotea, Astigarragako tabernetan.

21:30etan, Pintxo onenaren sari banaketa.

Puri-Purian

Salaketa (1)

«Jai Batzordea zoriondu ... (2)

Martxoak 5, ostirala: 09:00etan egingo da baratzen bisita, Astigarragako Herri Eskolako eta inguruko ikastetxeetako ikasleekin.

Martxoak 6, larunbata: 11:00etan, baratzen bisita gidatua udaletxeko kontzejupetik abiatuta. Ondoren ilar-fastatzea egingo da Txaro Zapiain eta Roberto Ruiz sukaldariak gidatuta eta hazien pribatizazioari buruzko tailerra egongo da Haziera-ren eskutik.

Martxoak 7, igandea: 09:00etan, txistularien diana berezia.

11:00etan, azoka, ilarrak eta Euskal Herri osoko produktuak salgai eta haurrentzako talo-tailerra Foru plazan.



Inprimatu

Txiokatu



IRUZKINAK

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragarri bateragarria:

- [Firefox](#)
- [Chrome](#)
- [Internet Explorer 11+](#)
- [Safari](#)

gurean.eus

Gida komertziala



Bilatu



Iragarki merkeak

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.


Telefonoa: 616886660


Tweets por @KronikaNet

gur



**Azpeiti
17an E
Eguna**

 GUREA



**Erretiro
lanean**

Gaur



21°

13°

Bihar



23°

14°

Etzi



19°

11°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak



Korrika Ttikia 2017 Go...



Korrika 2017 Astigarragan



Korrika 2017 Hernanin



Mikro Korrika 2017



Korrika Txikia 2017




Dino Korrika 2017

Azken bideoak



Azkeneko bideoak, web orrian





Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Patxi Zabaletaren hitzaldia, herritarren ...

Patxi Zabaletaren hitzaldia, herritarren ...

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus

astigarraga@kronika.eus

urumea@kronika.eus



LAGUNTZAILEAK



Legezko oharra